

# Tapoi magikoa

**M**arikalanbre eta lagunak zalapartaka sartu dira etxera. Egardia dute, eta, ura edaten lehenak izateko lehian, ur dezente isuri zaie lurrera. Bat-batean, Amona Txinparta sartu da, eta hantxe harrapatu ditu denak, putzuaren inguruan.

–Ene bada! –egin die errieta Amonak, barreari eusteko ahaleginak eginez–. Tapoi magikoa erabili behar zenuten; horrekin ez zenuten tanta bat bera ere galduko.



## Karta tapoi bihurtzen denean

Zer uste duzu: erabil dezakegu karta arrunt bat tapoi gisa?

### Materiala

Urez betetako edalontzi bat  
Karta bat

### Zer egin

Jarri karta edalontzi gainean; kartak guztiz estali behar du edalontziaren ahoa. Hartu edalontzia esku bat kartaren gainean duzula, eta bestea edalontziaren ipurdian. Irauli edalontzia, eta kendu azpiko eskua. Ez izan ura isurtzeko beldurrik!

### Zer gertatu da

Kanpoko aireak indar handiagoa egiten du kartan, edalontzi barruko urak baino. Hortaz, karta edalontziari itsatsita geratzen da, eta ez da tantarik isurtzen.

Tapoi magikoa? Hurrek harrিতa begiratu diote Amonari.

–Ez begiratu horrela, umeok. Ziur zuen etxeetan ere badituzuela halako tapoiak; nik hementxe daukat mordoxka bat –esan die, karta sorta bat hartuz–. Nola funtzionatzen duten ikusi nahi?

–BAIIII! –erantzun dute denek batera.



Amonak edalontzi bat hartu, eta ertzeraino bete du urez. Gero, karta batekin estali du, eta, esku bat goian eta bestea behean jarrita, edalontzia irauli du. Orduan, azpiko eskua kendu du. Eta ura ez da erori! Marikalanbrek ezin du sinetsi:

–Nola egin duzu hori, Amona?

–Meritua ez da nirea –aitortu die–. Aireak egiten duen indarra edalontzi barruko urak egiten duena baino handiagoa da; horregatik ez da tantarik galtzen.

Eta halaxe utzi ditu Amonak haurrak, ahoa bete hortz eta begiak arranpalo.

